


## Euskal AEko industria-jarduera % 1,7 igo zen 2020ko otsailean

**Aurreko hilabetearekin alderatuta (2020ko urtarrila), Industria-produkzioaren indizea % 1,6 hazi zen**

Euskal AEko industria-produkzioa % 1,7 igo zen 2020ko otsailean, 2019ko hilabete berarekin alderatuta, lan-egutegiaren termino homogeneoetan, Eustatek egindako datuen arabera.

Aurreko hilabetearekin alderatuta (2020ko urtarrila), Euskal AEko industria-produkzioa % 1,6 hazi zen urtaroen eraginak zuzendu ondoren.

### Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2020ko otsaileko indizeak 2019ko otsailarekin alderatuta izan duen bilakaera positiboa da industria-sektore handi guztientzat. *Ekipo-ondasunek* % 5,8 egin dute gora, eta *Bitarteko ondasunek*, berriz, % 1,2. *Energia* eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 2,5 igo dira. Azken horien barruan, *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 9,5 hazi dira, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 1,0.

Hilabete arteko aldakuntzak (2020ko otsailekoa 2020ko urtarrilekoaren gainean) bilakaera positiboak izan ditu industria-sektore handi gehienetan: *Ekipo-ondasunak* % 5,6 igo dira, *Bitarteko ondasunak* % 2,4 eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 0,6 igo dira, zeren *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 3,1 igo baitira, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak*, berriz, ez baitira aldatu (% 0,0). *Energia* % 3,3 jaitsi da.

Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2020ko otsailean urtetik urterako aldakuntzetan hazkunde handienak izan dituztenak honako hauek dira: *Material eta ekipa elektrikoa* (% 10,5eko igoerarekin), *Garraio-materiala* (% 9,9ko hazkundea) eta *Makineria eta ekipoa* (% 5,8ko goratzea). Aitzitik, beherakadak gertatu dira hauetan: *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* sektorean (urte arteko beherakada % 4,5koa izan da horretan) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* deritzonengan (jaitsiera % 0,7koa izan da).

### **Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak**

|                                                    | m / m-12 |
|----------------------------------------------------|----------|
| <b>A38 SEKTORIZAZIOA</b>                           |          |
| <b>SEKTORE NAGUSIAK<sup>(1)</sup></b>              |          |
| 10 - Metalurgia eta produktu metalikoak            | -0,7     |
| 16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina          | 1,6      |
| 09 - Kautxua eta plastikoak                        | 4,7      |
| 13 - Makineria eta tresneria                       | 5,8      |
| 14 - Garraio-materiala                             | 9,9      |
| 03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak | 2,9      |
| 12 - Material eta tresneria elektrikoa             | 10,5     |
| 05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak          | -4,5     |

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

**Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea**

Lurraldeen arabera, Industria Produkzioaren Indizearen otsaileko urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban (% 7,8ko hazkundea) eta Gipuzkoan (% 1,7koa). Aitzitik, Bizkaian indizeak % 1,9 egin du behera.

**Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2020ko Otsaila**

|                                                           | Egutegiaren eragina zuzendutako datuak |                            | Datu desestazonalizatuak |                   |
|-----------------------------------------------------------|----------------------------------------|----------------------------|--------------------------|-------------------|
|                                                           | Ots2020 / Ots2019                      | A(Ots2020) / A(Ots2019)(*) | Ots2020 / Urt2020        | Urt2020 / Abe2019 |
| <b>Indize orokorra</b>                                    |                                        |                            |                          |                   |
| <b>Euskal AE</b>                                          | <b>1,7</b>                             | <b>-0,4</b>                | <b>1,6</b>               | <b>0,0</b>        |
| Araba/Álava                                               | 7,8                                    | 2,1                        | 4,7                      | 0,4               |
| Bizkaia                                                   | -1,9                                   | -1,5                       | -0,1                     | 0,1               |
| Gipuzkoa                                                  | 1,7                                    | -0,7                       | 1,5                      | -0,3              |
| <b>ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK</b> |                                        |                            |                          |                   |
| Kontsumo-ondasunak                                        | 2,5                                    | 3,3                        | 0,6                      | 2,9               |
| Kontsumo-ondasun iraunkorrak                              | 9,5                                    | 5,2                        | 3,1                      | 1,0               |
| Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak                           | 1,0                                    | 2,9                        | 0,0                      | 3,3               |
| Ekipo-ondasunak                                           | 5,8                                    | 1,1                        | 5,6                      | 3,2               |
| Bitarteko ondasunak                                       | 1,2                                    | -2,4                       | 2,4                      | -1,3              |
| Energia                                                   | 2,5                                    | 5,0                        | -3,3                     | 3,1               |

(\*) 2020ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2019eko aldi beraren aldean

**Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea**

**Informazio gehiagorako:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62*